

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak funtziona dezan, hurrengo jarduerak dira egin beharrekoak eta garrantzitsuenak:

### 1. jarduera

Lehenik eta behin **aplikazioa sortu** behar dugu. Aplikazioa informatikako teknikari batzuen esku utziko dugu, hori bai, guk diseinatuko dugu aplikazioa honek edukiko dituen ezaugarri, funtzio, gune eta itxurarekin, eta gero, informatikari baten laguntzaz aplikazioa sortuko dugu.

#### App-ak 5 leiho edukiko ditu:

1- Zure sentimenduak idazteko edo grabatzeko leiho bat. Behin hauek adierazita, zure eguneko abestia agertuko zaizu, zure laguneren abestiek batera.

Abestia inteligentzia artifizialaren bidez aukeratuko da, zure sentimenduekin bat egiteko.

2- Zure abesti guztiak gordeko dituen egutegia.

3- Lagunak gehitzeko gunea.

4- Bi astean behin, beste leiho bat egongo da, estatistikak eta ezezagun batekin hitz egiten hasteko chat-a agertuko direna. Egun horretara arte ez da gune honetara sartzeko sarbidea egongo.



5- Ezarpenak (pribazitate auziak, zure gustuak aldatzeko aukera, zure datuak...).

## 2. jarduera

Horrez gain, aplikazioan sortu daitezken **arazoak etengabe konpontzen** arituko gara, eta horrekin batera aplikazioa eguneratuta mantenduko dugu. Horretarako, kontratatutako informatikari baten lanaz baliatuko gara.



## 3. jarduera

**Publizitatea** egitea ere funtsezko jarduera bat izango da, dirua lortu ahal izateko. Beste puntuetan azalduko dugu puntu hau, sakonki.

## 4. jarduera

Bestalde, **zozketa** batzuk egingo ditugu, hainbat festibaletara joan ahal izateko. Horrek, gure bezeroak mantzentzeko eta bezero berriak eskuratzeko balioko digu.